


# PEDRO de ZUBIAUR

## 1541-1605

XVI. mendearen amaierako garaia oso garai asaldatua izan zen, balentriaz eta tragediaz beteriko garaia, alegia. Pedro de Zubiaurrek garai horretako bizitza izan zuen. Ziortzan jaio zen eta gaztetatik heldutasunera arte ia-ia berrogei urte eman zituen itsasoan. Garai horretan ohikoa zen moduan Zubiaur Albako Dukeari Flandriako gerran laguntzera Bilbotik zihoazen ontzietan hasi zen, 1568an. Bere trebetasunari esker Iparraldeko itsasbidean Bizkaiko eskuadra erasotzen zuten berrogei bat inguru ontzi frantziarrak garaitu zituen. Ingelesek preso hartu zuten aipatutako Flandriako gertakizunetan eta geroxeago askatu zuten. Drake kortsarioaren eskuadrak harrapatutako hainbat milioi dukat itzultzeko negoziazioetan parte hartu zuen, baina ez zuen helburua lortu. 1588an, Garaiezinaren kanpaina hasita, Flandriako kostaldean egon zen eta eraso garrantzitsuak burutu zituen Dunkerken eta Ingalaterrako kostaldean. Bertan, Eskuadraren porrotaren ondoren preso hartutako soldadu askoren askatasuna negoziatu zuen. Ez zuen Zubiaurrek Ingalaterrako lehoiaren atzaparretan erortzeko inolako beldurrik. Izan ere, gizon guztiekin Coruñarantz abiatu izan zenean britainiarrei eraso egin zien beraien portuetan. Hala ere, itsasgizon horren bidea ez zen orduan amaitu. 1590ean hamalau ontzi holandar garaitu zituen. 1591n berrogei ontziko eskuadra ingeles bat suntsitu zuen eta urte berean Bordeleko portuko badian Wilckes almirantearen ontzi ingelesak garaitu zituen berriro. 1595ean tropei laguntza emanez abiatu zen Britainiarantz eta kanpaina handia egin zuen Atlantikoan. 1596 eta 1597 bitartean gaixorik egon bazen ere garaipen handiak lortu zituen Ingalaterrako, Holandako eta Frantziako ontzi kortsarioen aurrean, Geroxeago Irlandara heldu zen eta irlako katolikoak defendatu zituen britainiarren aurrean. 1600 eta 1605 bitartean Indiatako ontzidiaren itsasbide ozeanikoan ibili zen eta behin batean etsaiaren hainbat ontzi garaitu eta gero Brasiletik zetorren kargamendu oso bat Cadizeraino eramatea lortu zuen, inolako kalterik gabe. Hainbat misio burutzeko bidali zuten sarritan Ingalaterrara eta hortxe zendu zen bat-batean. 1661ean bere gorpuzkinak ekarri eta euskal lurrean lurperatu ziren behin betiko. Britainia Handiko Lehoiak ez zuen Felipe II.aren lehoia menperatu.

El final del siglo XVI fue un tiempo convulso, lleno de grandezas y tragedias. Pedro de Zubiaur poseyó una vida propia de aquellas épocas. Nacido en Zenarruza, desde su juventud a su madurez pasó casi cuarenta años dedicado al mar. En el horizonte habitual de esta etapa, encontramos en sus orígenes a Zubiar destinado a las flotas que desde Bilbao debían apoyar al duque de Alba en Flandes durante 1568. Su habilidad en el mar pudo derrotar durante aquel año a casi cuarenta navíos franceses que hostigaban a la Escuadra vizcaína en singladura Norte. Hecho prisionero por los ingleses en las referidas acciones de Flandes y liberado tiempo después, participó sin éxito en la negociación de varios millones de ducados capturados por la Escuadra de Drake. Iniciada la campaña de la *Invencible* en 1588 se mantuvo en las costas flamencas, llevando a cabo brillantes acciones en Dunkerque y el litoral de Inglaterra, donde negoció el canje de los prisioneros hispanos tras la derrota de la gran Escuadra. No temía Zubiaur entrar cuantas veces hiciera falta en la boca del león inglés. De hecho, partió para La Coruña embistiendo a los británicos en sus puertos con los hombres y con la artillería de las naves que pretendían retener. No quedó aquí la carrera de este marino. En 1590 rindió a catorce naves holandesas, en 1591 destruyó una escuadra inglesa de 40 barcos y en 1592 volvió a vencer a los británicos del almirante Wilckes en la rada del puerto de Burdeos. En 1595 fue a socorrer a las tropas hispanas en Bretaña, haciendo una amplia campaña por el Atlántico, así como entre 1596 y 1597, incluso enfermo, lograba grandes victorias contra buques corsarios de Inglaterra, Francia y Holanda. Continuó luego en la Campaña de Irlanda, donde defendió a católicos contra británicos, para entre 1600 y 1605 cubrir las rutas oceánicas de la Flota de Indias, posibilitando que un gran cargamento oriundo del Brasil llegase a Cádiz intacto tras dejar atrás a varias unidades enemigas. Fue de nuevo enviado a Gran Bretaña en diversas misiones, sorprendiéndole allí la muerte. En 1661 se trajeron sus restos definitivamente, quedando enterrados en tierra vasca. Al león de Felipe II no le derrotó el león de Gran Bretaña.

The last years of the 16th century were a time of convulsion, full of great deeds and great tragedies. Pedro de Zubiaur lived a life that was typical of that period. Born in Zenarruza, from his youth to his old age he dedicated almost forty years to the sea. In line with a typical career in this period, we find Zubiar sailing with the fleets that, from Bilbao, supported the Duke of Alba in Flanders throughout 1568. His maritime skills enabled him to defeat almost forty French ships that were harassing the Biscay Squadron on its northern route. He was captured by the English during the said actions in Flanders and later set free. He took part, without success, in the negotiations to recover several million ducats captured by Drake's squadron. Once the campaign of the *Spanish Armada* began in 1588, he stayed on the coasts of Flanders, performing brilliant actions at Dunkirque and on the coasts of England, where he negotiated the exchange of Spanish prisoners after the defeat of the Great Armada. Zubiaur never feared sailing into English waters as often as necessary. In fact, he sailed for Corunna attacking the British in their ports with the men and artillery they intended to retain. That was not the end of this sailor's career. In 1590 he obtained the surrender of fourteen Dutch ships, in 1592 he destroyed an English squadron of 40 ships and in 1592 he defeated the British, who were commanded by Wilckes, at the port of Bordeaux. In 1595, he set sail to rescue the Spanish troops in Brittany, organising an extensive campaign in the Atlantic. Between 1596 and 1597, even while ill, he obtained victories against English, French and Dutch corsairs. He was later involved in the Irish Campaign, where he defended the Catholics against the British and from 1600 to 1605 he protected the Atlantic routes of the West Indies Fleet, enabling a large cargo from Brazil to reach Cadiz intact after avoiding several enemy units. He was sent to Great Britain on several missions, where he finally died. In 1561 his remains were brought back to the Basque Country where they were buried. Philip II's lion was not defeated by the lion of England.